1492/2026 EBAZPENA, Urriaren 15ekoa, Bidasoko ESIko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Kirurgia Arloko Zerbitzu Sanitarioko buru lanpostua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Bidasoko ESIko zuzendari gerentearen Uztailaren 21eko 1237/2026 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bidasoko Kirurgia Arloko Zerbitzu Sanitarioko buru izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2026ko irailaren 7ko EHAA 170. zk. eta 2026ko irailaren 16ko BOE 229. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2026ko urriaren 7an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Bidasoko ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

1.-Bidasoko ESIko Kirurgia Arloko Zerbitzu Sanitarioko buru izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

2.-Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

3.-Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Bidasoko ESIko zuzendari gerenteari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Hondarribian, 2026ko Urriaren 15ean

Bidasoko ESIko zuzendari gerentea
PEDRO MORRONDO VALDEOLMILLOS

Osakidetza

BIDASOKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
BIDASOA

I. ERANSKINA

BIDASOKO ESI-KO KIRURGIA ARLOKO ZERBITZU SANITARIOKO BURU IZENEKO LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Alberto Hernandez Fernandez

Baztertuak:

- Bat ere ez